



BERGARAKO UDALA

“CoWork Gunea” udal zerbitzuaren erabilera arautzeko araudia

Begarako Udalak “CoWork Gune” bat martxan jarri nahi du Bergaran, eta UNED Bergara Fundazioak horren berri izanda, ekintza hori burutzeko Bergarako Udalarari laguntza emateko prest azaldu da, Errege Seminarioko lokal bat eta beste hainbat baliabide erabiltzeko aukera emanda.

Egin eta izapidetu nahi den proiektua azaltzeko memoria:

Begarako Udalak, Garapen Sozioekonomikoaren zerbitzutik, CoWork Gunearen zerbitzua eskaini nahi die Bergara eta Debagoieneko ekintzaileei; hau da, lanerako espazio partekatu bat, lankidetzaren ekonomia-ereduan oinarrituta, sinergiak sortzeko, elkarrekin ikasteko, harremanak sustatzeko eta proiektuak eta ezagutzak partekatzeko balioko duena.

Horretarako, espazio bat egokitu da Bergarako UNEDeko eraikinean.

Hori dela-eta, 39/2015 Legeak (2015eko urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) 133. artikuluan ezartzen duena betetzeari begira, egin eta izapidetu nahi dugun proiektua azaltzeko memoria hau idatzi da:

Ekarpenak egiteko epea:

2022/05/31ra arte

Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak:

Arautegi honen onarpenarekin zerbitzua arautu nahi da, zerbitzua zeinek eta zein baldintzatan erabili dezakeen finkatzeko.

CoWork Gunearen bidez, Bergarako Udalak behin-behineko espazio bat eskainiko du enpresa-proiektu berriak garatzeko eta ekintzaileen eta bertan sortutako enpresa berrien arteko elkarlana sustatzeko.

Horretarako, espazio bat egokitu da Bergarako UNEDeko eraikinean.

Begarako CoWork Gunea honako erabiltzaile hauei zuzenduta dago:

Bergaran edo Debagoienean erroldatutako ekintzaileak (enpresa-proiektuan bi pertsona ekintzaile edo gehiago diren kasuetan nahikoa izango da eskatzailea Bergaran edo Debagoienean erroldatuta egotea).

CoWork Guneak honako hau eskaintzen du:

1. Baliabideak:
 - Erabiltzaileari esleitzen zaion plazaren erabilera (mahaia eta aulkia)
 - Espazio komunak erabiltzeko aukera (bilera-gela)
 - Ekipamendua: arbela, inprimagailua, wifi-sarea
2. Zerbitzuak:
 - Sare-konexioa



- Argindarra, ura
- Espazio komunaren garbiketa

Arauen onespena beharrezkoa eta egokia ote den:

Esan bezala, zerbitzua arautu beharra dago udalaren eta erabiltzaileen arteko harremana eta lokalen erabilera-sistema finkatzeko.

Begarako Udalak zerbitzua arautzeko “erregelamenduak egiteko ahalmena du”, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikuluan jasotakoaren arabera.

Arauen helburuak:

Arauen helburu nagusiak dira zerbitzua eta haren helburuak definitzea, eta funtsezko alderdiak arautzea: hala nola, prestazioak, erabilera, erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, zerbitzua eskuratzeko baldintzak eta prozedura, iraupena, zerbitzua etetea eta azkentzea.

Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik:

CoWork Gunearen zerbitzua ematea udal zerbitzu publiko bat da, eta arautzea ezinbestekoa da zerbitzua behar bezala emateko, hau da, ezinbestekoa da erabiltzaileen eta udalaren arteko harreman juridikoa antolatzen duen dokumentu bat lantzea.

Kasu honetan, zerbitzu berri bat eskaintzeko, irtenbide egokiena erregelamendu berri bat onartzea da.

Argitaratze-data: 2022/05/10



AYUNTAMIENTO DE BERGARA

Norma reguladora de utilización del servicio municipal “CoWork Gunea”

El Ayuntamiento de Bergara tiene intención de implantar un espacio de cotrabajo (“CoWork Gunea”) y la Fundación UNED Bergara ha mostrado su disposición a colaborar en ello facilitando la utilización de un local del Real Seminario y otros recursos.

Memoria descriptiva del proyecto que se pretende elaborar y tramitar:

El Ayuntamiento de Bergara, desde su Servicio de Desarrollo Socioeconómico, quiere ofrecer a personas emprendedoras de Bergara y del Alto Deba un servicio de espacio de cotrabajo (“CoWork Gunea”), es decir, un espacio compartido de trabajo, basado en el modelo de economía colaborativa, que sirva para generar sinergias, aprender recíprocamente, fomentar relaciones y compartir proyectos y conocimientos.

Para ello se ha habilitado un espacio en el edificio de la UNED en Bergara.

Así pues, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, se ha redactado la siguiente memoria explicativa del proyecto cuya elaboración y tramitación se pretende:

Plazo para realizar aportaciones:

Hasta el 31/05/2022

Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa:

Con la aprobación de esta normativa se pretende regular el servicio, estableciendo qué personas pueden utilizarlo y en qué condiciones.

A través de “CoWork Gunea”, el Ayuntamiento de Bergara ofrecerá un espacio provisional para desarrollar nuevos proyectos empresariales y fomentar la colaboración entre las personas emprendedoras y las nuevas empresas creadas en dicho espacio.

Para ello se ha habilitado un espacio en el edificio de la UNED en Bergara.

El “CoWork Gunea” de Bergara está dirigido a las siguientes personas usuarias:

Personas emprendedoras empadronadas en Bergara o en el Alto Deba (en los casos de proyectos empresariales con dos o más personas emprendedoras bastará con que esté empadronada en Bergara o Alto Deba la persona solicitante).

El espacio “CoWork Gunea” ofrece:

1. Recursos:

- Uso de la plaza (mesa y silla) asignada a la persona usuaria
- Disponibilidad de espacios comunes (sala de reuniones)
- Equipamiento: pizarra, impresora, red wifi

2. Servicios:



- Conexión de red
- Electricidad, agua
- Limpieza de espacios comunes

Necesidad y oportunidad de la aprobación de la norma:

Tal y como se ha indicado, es necesario regular el servicio a fin de establecer la relación entre el ayuntamiento y las personas usuarias, así como el sistema de uso de los locales.

El Ayuntamiento de Bergara está facultado para dictar reglamentos reguladores del servicio, de acuerdo con lo previsto en el artículo 4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Objetivos de la norma:

Los objetivos principales de la norma son definir el servicio y sus fines, y regular aspectos esenciales como, por ejemplo, las prestaciones, el uso, los derechos y deberes de las personas usuarias, las condiciones y procedimiento para acceder al servicio, su duración, la suspensión del servicio y su extinción.

Posibles alternativas regulatorias y no regulatorias:

La prestación del servicio de “CoWork Gunea” es un servicio público municipal, por lo que su regulación es imprescindible para la correcta prestación del servicio, es decir, necesariamente se ha de elaborar un documento que articule la relación jurídica entre las personas usuarias y el ayuntamiento.

En este caso, al ofrecerse un nuevo servicio, la solución más adecuada es aprobar un nuevo reglamento.

Fecha de publicación: 10/05/2022